

**786/2013 FORU AGINDUA, apirilaren 17koa, eredu hauek onetsi dituena: 583 - «Sortutako energia elektrikoaren balioaren gaineko zerga. Autolikidazioa eta zatikako ordainketak»; 584 - «Zentral nukleoelektrikoetan sortzen diren erregai nuklear agortuaren eta hondakin erradiaktiboen gaineko zerga. Autolikidazioa eta zatikako ordainketak»; 585 - «Instalazio zentralizatueta biltzen diren erregai nuklear agortuaren eta hondakin erradiaktiboen gaineko zerga. Autolikidazioa eta zatikako ordainketak»  
(BAO Apirilaren 22koa)**

786/2013 FORU AGINDUA, apirilaren 17koa, eredu hauek onetsi dituena: 583 - «Sortutako energia elektrikoaren balioaren gaineko zerga. Autolikidazioa eta zatikako ordainketak»; 584 - «Zentral nukleoelektrikoetan sortzen diren erregai nuklear agortuaren eta hondakin erradiaktiboen gaineko zerga. Autolikidazioa eta zatikako ordainketak»; 585 - «Instalazio zentralizatueta biltzen diren erregai nuklear agortuaren eta hondakin erradiaktiboen gaineko zerga. Autolikidazioa eta zatikako ordainketak».

Gure zerga sistema ingurumenaren erabilera eraginkorragoarekin eta iraunkorragoarekin bateratzeko eta aurrekontuen oreka sustatzeko ingurumeneko politikak txertatzeko estrategiaren barruan, otsailaren 26ko 2/2013 Foru Dekretu Arauemailearen bidez Bizkaiko Lurralde Historikoan aplikatuko diren hiru zerga berri ezarri dira: Sortutako energia elektrikoaren balioaren gaineko zerga, zentral nukleoelektrikoetan sortzen diren erregai nuklear agortuaren eta hondakin erradiaktiboen gaineko zerga, eta instalazio zentralizatueta biltzen diren erregai nuklear agortuaren eta hondakin erradiaktiboen gaineko zerga.

Aurreko foru dekretu arauemaileko 3. artikuluan xedatu da zerga horiek itundu arte iraunkortasun energetikorako zerga neurriei buruzko abenduaren 27ko 15/2012 Legean ezarritako arautegia aplikatuko dela, ondore eurekin.

Zergadunek nahitaez egin behar dituzte zatikako ordainketak 2013ko apirilean eta maiatzean zerga horien kontura; hori dela eta, foru agindu honen bidez zerga horien autolikidaziorako eta zatikako ordainketetarako 583, 584 eta 585 ereduak onetsi behar dira.

Horrenbestez, hauxe

XEDATU DUT:

**1. artikulua. 583 ereduaren onespena**

**Bat.** 583 ereduak onetsi da: «Sortutako energia elektrikoaren balioaren gaineko zerga. Autolikidazioa eta zatikako ordainketak». Foru agindu honen I. eranskinean dago.

**Bi.** Iraunkortasun energetikorako zerga neurriei buruzko abenduaren 27ko 15/2012 Legeko 4. artikuluan aipatzen diren jardueretako bat eginez gero, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 34. artikuluko 3. idatz-zatian aipatzen diren pertsona fisikoek zein juridikoek eta erakundeek eredu hau aurkeztu beharko diote Bizkaiko Lurralde Historikoko Zerga Administrazioari bertan badauzkate energia elektrikoa sortzeko eta sistema elektrikora bidaltzeko zentroak.

## **2. artikulua. 584 ereduaren onespina**

**Bat.**584 eredu onetsi da: «Zentral nukleoelektrikoetan sortzen diren erregai nuklear agortuaren eta hondakin erradiaktiboen gaineko zerga. Autoliquidazioa eta zatikako ordainketak». Foru agindu honen II. eranskinean dago.

**Bi.** Iraunkortasun energetikorako zerga neurriei buruzko abenduaren 27ko 15/2012 Legeko 15. artikuluan aipatzen diren jardueretako bat eginez gero, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 34. artikuluko 3. idatz-zatian aipatzen diren pertsona fisikoek zein juridikoek eta erakundeek eredu hau aurkeztu beharko diote Bizkaiko Lurralde Historikoko Zerga Administrazioari bertan badauzkate energia nukleoelektrikoa sortzeko instalazioak.

## **3. artikulua. 585 ereduaren onespina**

**Bat.**585 eredu onetsi da: «Instalazio zentralizatueta biltzen diren erregai nuklear agortuaren eta hondakin erradiaktiboen gaineko zerga. Autoliquidazioa eta zatikako ordainketak». Foru agindu honen III. eranskinean dago.

**Bi.** Iraunkortasun energetikorako zerga neurriei buruzko abenduaren 27ko 19/2012 Legeko 15. artikuluan aipatzen diren jardueretako bat eginez gero, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 34. artikuluko 3. idatz-zatian aipatzen diren pertsona fisikoek zein juridikoek eta erakundeek eredu hau aurkeztu beharko diote Bizkaiko Lurralde Historikoko Zerga Administrazioari bertan badauzkate erregai nuklear agortua eta hondakin erradiaktiboak zentralizatutako biltzeko instalazioak.

## **4. artikulua. 583 eredu aurkezteko epealdia**

**Bat.**583 eredu aurkeztu behar duten zergadunek ekitaldi bateko urteko autoliquidazioa hurrengo urteko azaroan egin behar dute.

**Bi.** 583 eredu aurkeztu behar duten zergadunek urteko autoliquidazioaren konturako ordainketak egin behar dituzte hiru hilean behin, hain zuzen ere maiatzeko, iraileko, azaroko eta otsaileko egutegiko lehenengo 25 egunetan.

## **5. artikulua. 584 eta 585 ereduak aurkezteko epealdia**

**Bat.** 584 eta 585 ereduak aurkeztu behar dituzten zergadunek ekitaldi bateko urteko autoliquidazioa aurkeztu behar dute zerga horietako bakoitzagatik hurrengo urteko urtarrilean.

**Bi.** 584 eta 585 ereduak aurkeztu behar dituzten zergadunek zerga horietako bakoitzaren urteko autoliquidazioaren konturako ordainketak egin behar dituzte hiru hilean behin, hain zuzen ere apirilko, uztailko eta urriko egutegiko lehenengo 25 egunetan.

## **6. artikulua. Nola aurkeztu 583, 584 eta 585 ereduak**

583, 584 eta 585 ereduak telematikoki aurkeztu behar dira nahitaez.

## **XEDAPEN IRAGANKORRA**

2013ko ekitaldiko lehenengo hiruhilekoko zatikako ordainketetarako 584 eta 585 ereduak 2013ko maiatzean aurkeztu behar dira.

## **AZKEN XEDAPENA**

Foru agindu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

## **I. ERANSKINA**

### **583 Eredua**

[583 eredia](#) Bizkaiko Aldizkari Ofizialean

## **II. ERANSKINA**

### **584 Eredua**

[584 eredia](#) Bizkaiko Aldizkari Ofizialean.

## **III. ERANSKINA**

### **585 Eredua**

[585 eredia](#) Bizkaiko Aldizkari Ofizialean.